

ANALISIA



Nola isilarazi jendea sareetan?



Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaitz

Laster hilabete Alfredo Ramirez *Erreharrria* espetxean daukatela. Espainiako Estatuan Twitterren iritzia emateagatik espetxeratu duten lehena da amurriarra.

Sare sozialek komunikazioa eraldatu dute eta kostatzen ari zaie estatu autoritarioen isiltasunaren legea inposatzea plaza birtual hauetan. Batzuei zigor “eredugarriak” jarritz gainontzeko guztiak mehatxatzea erabaki du Espainiako Estatuak. Euskal Herrian informazio eta adierazpen askatasunaren aurkako operazioen biktimak ugari ditugu, azkenetakoak *Armiarma operazioa*: 21 atxiloturen artean, *La Haine* hedabideko kazetari Borori, urtebete eta zortzi hilabeteko espetxea eskatzen diote.

Azaroaren 16an pauso berria eman du Espainiako Epaitegi Gorenak: Twitterren mezu jakin batzuk bertxiotzea delitua izan daiteke. Horretarako, beste euskal herritar baten kasua baliatu du aurrekari juridikoa ezartzeko, Andeka Jurado barakaldarrarena. Mezua garbia da: bertxiotzea bezalako ekin-tza sinpleagatik, klik bakarragatik, arazotan sar zaitezke, beraz kontuz ibili. Twitterren ibili denak, dena den, badaki bertxiotzeak ez duela esan nahi ados zaudenik. Honela dio oraindik eta eskuinerago joaten ari den Estatu horretako Epaitegi Gorenak: “Ez da beharrezkoa akusatuak bere eduki gisa asumitu, arrazoitu edo argudiatzea, ezta berak sortua izatea ere; nahikoa da publizita-

tea ematea, pertsona kopuru handiaren-gana zabaltzea”. Juradori urte eta erdiko espetxea berretsi diote lau txiogatik: Youtubeko *Euskal Herria résistance* bideoa zabaltzeagatik, Josu Uribetxebarrria preso gaixoa hiltzean “losu agur eta ohore” idazteagatik eta hari buruzko bi txio bertxiotzeagatik.

Hori jakin berritan, Espainiako Fiskal Nagusia hil da: Jose Manuel Maza, bereziki ezaguna Kataluniako prozesuaren aurkako jarrera zigortzaileagatik. Jende askok ez zuela maite pentsatu bide du Espainiako Barne ministro Jose Ignacio Zoidok, bere kontu ofizialetik ordena jartzen saiatzeko. Pertsona bat mehatxatu eta bere mezuak zabaltzen ibili da -txio batzuei oihartzun ematea ez al zen delitua?-, eta berdin Guardia Zibilaren kontua ere. Abisua *Twitterrian*.

Logika ez da berria. Guttembergekin inprenta 1448an asmatu zuenetik, liburu eta ideien hedatzea ez zuen begi onez ikusi Espainiako Inkisizioak, eta azkenean, 1551n *Index Librorum Prohibitorum* argitaratu zuen. Ezin badituzu ideiak garaitu, debeka itzazu; eta bide batez, mezulariak sutara.

Ondorio gisa, NO-DO Digital izeneko txiolari anonimoaren gogoeta bertxiotuko dugu orri honetan: “*Artur Mas camara de gas* eta *Puigdemont al paredón* esanez esnatzen zara, eta Jose Manuel Mazaren heriotzarekiko errespetua exijituz oheratzen zara. Fatxa izatea ez da erraza”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Errusiar iraultzatik iraultza antikapitalistara



Juan Mari Arregi

Prentsan gogorarazi digute 1917ko errusiar iraultzaren data historikoa. Prentsa horren gehiengoak botere ekonomiko eta politikoaren mende dagoenez, iraultza hura deskalifikatu eta desterratu dute. Beraientzat, mugimendu hura herritarren kontrakoa eta antisoziala izan zen, eta terrorea, errepresioa eta totalitarismoa aipatu dituzte. Iraultza erabat negatiboa izan zela diote... baina iraultza orok bezala, alde ilunak eta alde positiboak dauzka.

Duela ehun urteko errusiar iraultzak, akatsak eta ondorio ezkorrak izanik ere, munduarentzat aldaketa funtsezkoa ekarri du. Errusiako monarkiaren eta Estatu arkaikoaren erorketak mezu garbia eman zuen: gizartea aldatu eta eraldatu deza-kegu. Horretarako beharrezkoa da borondatea eta baliabideak izatea. Iraultzarekin lortu zen familia gutxi batzuek herritarrekiko zuten nagusitasuna ezabatzea.

Errusiar feudalismoak egin zuen bezalaxe, gaur kapitalismoak gutxi batzuen botere ekonomiko inposatzen segitzen du gehiengoarengan, familia urri batzuek aldian aldiko gobernu politikoak erabiltzen dituzte. Etekinen pilaketa, bazterkeria soziala, prekarietatea, txirotasuna, berdintasunik eza, gerrak, armen karrera, migrazio politiko eta ekonomikoak, tortura, kartzela, erbestea... Ondorio praktikoak baizik ez dira horiek denak. Kapitalismoa garaitzeko beste iraultza bat beharrezkoa da, gizartearen eraldaketa erradikala ekarriko duena. Nola egin? Mugimendu politiko, sindikal eta sozialek euren eskuetan dute herritarren gehiengoak babestuko duen bide-orria garatzea. Elkarrekin eta batuta urratsak eman ez gero, feudalismo moderno hori eraitsi dezakegu.